# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2017IPLE0005
**Eguna:** 2017/04/26
**Ordua:** 13:30 – 14:30
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Juan Martin Arregui Sagües | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Olaia Pastoriza Santos | EAJ-PNV |
| - Nerea Zusberro Alberro | EAJ-PNV |
| - Urkiri Salaberria Gracia | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHbildu |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHbildu |
| - Ander Goicoechea Ocariz | EHbildu |
| - Ainara Vázquez Martinez | EHbildu |
| - Iker Goñi Salaberria | EHbildu |
| - Mª Teresa Bernal Monroy | EHbildu |
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak (4. aztergaian) |

**Bertaratu ez direnak**

-

**Bertaratutako udal teknikariak**

- Xabin Olaizola Lasa, udal kontu-hartzailea

**Idazkaria**

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2017ko martxoaren 29ko aktaren onarpena.** | 1 | Aprobación del acta de 29 de marzo de 2017. |
| **HAPOren HEA 23 “Zarkumendegi Zabalpena” eremuaren aldaketa: alegazioen erantzuna eta behin-behineko onarpena.** | 2 | Modificación del PGOU referida a la A.I.U 23 “Zarkumendegi Zabalpena”: contestación alegaciones y aprobación provisional. |
| **Berdintasuna: arlo arteko lan talde teknikoa.** | 3 | Igualdad: grupo de trabajo técnico interdepartamental. |

| | | |
|---|---|---|
| **2016 ekitaldiko likidazio a onartzen duen 363/2017 dekretuaren berri ematea.** | **4** | Dar cuenta del decreto 363/2017 por el que se aprueba la liquidación del ejercicio 2016. |
| **Kontu-hartzailearen komunikazioren berri ematea.** | **5** | Dar cuenta de la comunicación del interventor. |
| **6 etxebizitza eta 450 m$^2$ko lokalaren titulartasuna eskuratzea.** | **6** | Adquisición de la titularidad de 6 viviendas y local de 450 m$^2$. |
| **Ondasunen ikerketa-espedientearen ebazpena: Goikoetxe eta Bortoene baserrien inguruko herri-bidea.** | **7** | Resolución del expediente de investigación: camino rural alrededores de los caseríos Goikoetxe y Bortoene. |
| **Ondasunen ikerketa-espedientearen ebazpena: landalurreko 9. partzela.** | **8** | Resolución del expediente de investigación: terrero rural de la parcela 9. |
| **Informazio, galdera eta eskariak.** | **9** | Información, ruegos y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak eta Andoni zinegotziak adierazi dute goizean egindako tokiko gobernu batzordean erabaki dela Oier Gomez Mielgo Gasteizko presoaren inguruan EHBIldu taldeak aurkeztutako mozioa premiaz gai-zerrendan txertatzea.

Alkateak adierazi du bere taldeak ez duela eragozpenik mozioarekin eta gai-zerrenda ez sartu izana gaizki ulertu baten ondorioa izan dela, ez baitziren ohartu presa zuen gai bat zela.

Jarraian mozioa gai zerrendan premiaz sartzeko bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

La alcaldesa y el concejal Andoni señalan que en la comisión de gobierno celebrada a la mañana se ha decidido incluir – por urgendia – en el orden del día la moción presentada por EHBildu sobre el preso de Gasteiz Oier Gomez Mielgo.

La alcaldesa señala que su grupo no tiene ningún problema con la moción, y que el hecho de no haberla incluido en el orden del día ha sido producto de un malentendido, pues no se percataron de que se trataba de un tema urgente.

A continuación se procede a la votación sobre la inclusión urgente de la moción en el orden del día, resultando aprobada **por unanimidad.**

### 1.- 2017ko martxoaren 29ko aktaren onarpena.

Akta aho batez onartu da.

### 1.- Aprobación del acta de 29 de marzo de 2017.

El acta se aprueba por unanimidad.

**2.- HAPOren HEA 23 "Zarkumendegi Zabalpena" eremuaren aldaketa: alegazioen erantzuna eta behin-behineko onarpena.**

Alkateak adierazi du hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro batzordeko irizpena mahai gainean uzten duela, onarpenerako gehiengo osoa behar delako eta ez dagoelako bermantua emaitza hori lortuko denik.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du azken udal osoko bilkuran egindako proposamen bera egiten dutela, hots, alegazio-epean Gruas Zapirainen inguruan bere taldeak egindako proposamena onartuz gero, alde bozkatuko dutela, eta bestela abtenitu egingo direla.

Alkateak erantzun dio gai hori aztertuta dagoela, eta mahai gainean uztea erabaki duela. Horren inguruan zinegotziak galdetu du erabaki hori bozkatu behar den edo hartzeko eskumena nori dagokion; eta erantzun zaio alkateak erabaki dezakeela gai bat gai-zerrendatik kentzea.

**2.- Modificación del PGOU referida a la A.I.U 23 "Zarkumendegi Zabalpena": contestación alegaciones y aprobación provisional.**

La alcaldesa señala que el dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda y medio ambiente, queda sobre la mesa ya que para su aprobación se necesita mayoría absoluta y no se puede garantizar. ese resultado

Toma la palabra el concejal Andoni, para ratificar la propuesta que ya realizaron en el último pleno municipal en el sentido de que en caso de aprobarse la propuesta realizada por su grupo al respecto de Grúas Zapirain, votarán a favor, y en caso contrario se abstendrán.

La alcaldesa le responde que ese tema ya se ha tratado con anterioridad, y que ha decidido dejar el tema sobre la mesa. A ese respecto el concejal pregunta si esa decisión debe votarse o a quién corresponde decidir, a lo que se le responde que la alcaldesa puede decidir eliminar un tema del orden del día.

**3.- Berdintasuna: arlo arteko lan talde teknikoa.**

Alkateak berdintasun eta mugikortasun batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

> ***Lehena.-*** *Arlo arteko lan taldearen funtzioak zehazteko akordioaren onarpena.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

**3.- Igualdad: grupo de trabajo técnico interdepartamental.**

La alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de igualdad y movilidad:

> ***Primero.-*** *Aprobar el acuerdo para la definición de las funciones del grupo técnico interdepartamental.*

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

**4.- 2016 ekitaldiko likidazioa onartzen duen 363/2017 dekretuaren berri ematea.**

2016ko ekitaldiko likidazioa onartzen duen Alkatearen 363/2017 ebazpenaren berri eman da eta adierazi aurrekontuaren emaitza positiboa izan dela. Bukatzeko adierazi du Aldundiari kitapenaren berri emango zaiola.

**4.- Dar cuenta del decreto 363/2017 por el que se aprueba la liquidación del ejercicio 2016.**

Se informa del decreto 363/2017 de la alcaldesa por el que se aprueba la liquidación del ejercicio 2016, se explica que el resultado del presupuesto ha sido positivo. Para terminar ha señalado que se va a dar traslado a la

Diputación de la liquidación.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du altxortegiko gerakina positiboa izan arren, azken udal osoko bilkuran hartutako erabakiari jarraikiz, ezin dela erabili 4 proiektu estrategikoen (Zarkumendegiko urbanizazioa, DBH, haur eskola eta kultur etxea) zenbatekoa zehaztu arte, eta galdetu du hori noizko egongo den.

El concejal Andoni toma la palabra para señalar que pese a que el remanente de tesorería es positivo, según la decisión adoptada en el último pleno el mismo no puede utilizarse hasta concretar el importe de los 4 proyectos estratégicos (urbanización de Zarkumendegi, ESO, la guardería y la casa de cultura), preguntando a continuación para cuándo estará resuelto ese tema.

Alkateak erantzun dio altxortegiko gerakinaren inguruan aurreko bileran hartutako erabakiak ez dituela inbertsioak geldiarazten, baizik eta horiek onartu aurretik aurrekontu bat edukitzera baldintzatzen duela. Bestalde, Jon zinegotziak adierazi dio proiektu guztien aurrekontuak eskatuta daudela, eta Zarkumendegiko urbanizazioaren kasuan, Astigarraga Lantzeneneko hurrengo kontseiluan emango dela emandako urratsen berri.

La alcaldesa le responde que la decisión adoptada en la reunión anterior sobre el remanente de tesorería no pone freno a las inversiones, sino que obliga a disponer de un presupuesto previamente a su aprobación. Por otra parte, el concejal Jon le indica que ya han solicitado presupuestos de todos los proyectos, y que en el caso de la urbanización de Zarkumendegi, explicarán los pasos dados hasta la fecha en el próximo consejo de Astigarraga Lantzen.

Andoni zinegotziak adierazi du beren asmoa dela gobernu taldeak konturatzea hartutako erabakiaren baitan altxortegiko gerakina ezingo dela ezertarako erabili.

El concejal Andoni señala que su intención es que el grupo de gobierno se dé cuenta – que tras el acuerdo adoptado – el remanente de tesorería no podrá utilizarse para nada.

Alkateak erantzun dio beraiek ulertzen dutela erabakiaren baitan gerakina ezin dela erabili inbertsioetarako, baina bai gainerako gastuentzako; eta gaineratu du hurrengo ogasun batzordean erabaki daitekeela erabakia nola interpretatu.

La alcaldesa le responde que su grupo entiende que el remanente no puede utilizarse para inversiones, pero sí para el resto de gastos; añadiendo que en la próxima comisión de hacienda podría decidirse cómo interpretar el acuerdo.

Zinegotziak adierazi dio akordioa hartuta dagoela, eta udal kontu-hartzaileari eskatu dio bere edukia azaltzeko.

El concejal le responde que el acuerdo ya está adoptado, solicitando al interventor municipal que explique su contenido.

Horrek adierazi du proposamenaren helburua zela gastu konpromisorik ez hartzea jakin gabe horiek dakarten kostua. Eta harturako erabakiaren baitan altxortegiko gerakina ezin dela erabili jakin arte bideratzen ari diren 4 proiektu estrategikoen gastua zenbatekoa den, eta premia duela horien estimazioa edukitzea.

Este señala que la propuesta pretendía no adoptar ningún compromiso de gasto hasta conocer el coste que conllevan. Y que de acuerdo con el acuerdo adoptado el remante de tesorería no puede utilizarse mientras se desconozca el importe de gasto de los 4 proyectos estratégicos en tramitación, y que hay urgencia en conocer el coste aproximado de los mismos.

Bukatzeko, alkateak adierazi du asmoa dela datuak lehenbailehen edukitzea, eta dena den, akordioak beti aldatu daitezkeela.

Para finalizar la alcaldesa señala que la idea es disponer de los datos a la mayor brevedad, y que en cualquier caso los acuerdos siempre pueden modificarse.

**5.- Kontu-hartzailearen komunikazioaren berri ematea.**

Gastu-araua ez betetzearen inguruko kontu-hartzailearen komunikazioaren berri eman da. Azaldu da kasu honetan ez dela beharrezkoa plan ekonomiko-finantzieroa egitea eta aski dela udalbatzari komunikazioa egitearekin, horretarako legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen baitira: diruzaintzako gerakina eta aurrezki garbia positiboak dira, eta urteko zor publikokaren eta urteko defizit helburua bete da.

**5.- Dar cuenta de la comunicación del interventor.**

Se da cuenta de la comunicación del interventor en relación al incumplimiento de la regla de gasto. Se explica que en este caso no es necesario formular un plan económico-financiero y es suficiente realizar una comunicación al pleno, dado que se cumplen los requisitos legales exigibles para ello: el remanente de tesorería y el ahorro neto son positivos, y se ha cumplido el objetivo de la deuda pública anual y del déficit anual.

**6.- 6 etxebizitza eta 450 m$^2$ko lokalaren titulartasuna eskuratzea.**

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

> ***Primero.-*** *Compensar las cantidades de 160.000,00 + 585.000,00 (local comercial y viviendas, que se detallan a continuación) que la empresa Britac Proyectos, S.L. adeuda al Ayuntamiento, con cargas urbanísticas y aprovechamientos urbanísticos. (una parte de la participación que la empresa Gailur Alde, S.L. tiene en este área urbanística, ha dejado en manos de la empresa Britac Proyectos, S.L. - Firmado ante Notario el 23 de diciembre de 2014).*

**6.- Adquisición de la titularidad de 6 viviendas y local de 450 m$^2$.**

La alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

> ***Primero.-*** *Compensar las cantidades de 160.000,00 + 585.000,00 (local comercial y viviendas, que se detallan a continuación) que la empresa Britac Proyectos, S.L. adeuda al Ayuntamiento, con cargas urbanísticas y aprovechamientos urbanísticos. (una parte de la participación que la empresa Gailur Alde, S.L. tiene en este área urbanística, ha dejado en manos de la empresa Britac Proyectos, S.L. - Firmado ante Notario el 23 de diciembre de 2014).*

| **Garajeak - Garajes** | **Etxebitzitzak - Viviendas** |
|---|---|
| 30 zenbakia (-1 sotoa) | Kontxa Etxeberria 9 – 3.B |
| 59 zenbakia (-2 sotoa) | Kontxa Etxeberria 9 – 4.B |
| 71 zenbakia (-2 sotoa) | Kontxa Etxeberria 8 – 1.A<br>mugikortasun urriko pertsonentzat |

| | |
|---|---|
| 90 zenbakia (-2 sotoa) | Kontxa Etxeberria, 8 – 3. A |
| 96 zenbakia (-2 sotoa)<br>mugikortasun urriko pertsonentzat | Kontxa Etxeberria 7 – 1. A |
| 113 zenbakia (-2 sotoa) | Kontxa Etxeberria – 2.A |

| |
|---|
| Lokal komertziala – 2 zenbakia – 455,30 $m^2$-koa. |

- 6 (etxebizitza + garajeak) x 97.500 =585.000 + %10eko BEZa (58.500)
- Lokal komertziala: 160.000 + %21eko BEZa (33.600)

***Bigarrena.-*** *Eskriturak sinatu baino lehen Britac Proyectos, S.L. enpresak udalari ziutagiri bat aurkeztu beharko dio ondareak kargarik ez duela adierazteko, baita komunitate-gastuen ordainketak egunean dauzkala dioen beste ziurtagiri bat aurkeztu ere, biak ere 2017ko apirilaren 1eko datarekin.*

***Hirugarrena.-*** *Udalak etxebizitza+garaje eta lokalaren BEZa ordaintzea: 58.500,00 + 33.600,00 = 92.100,00 €.*

***Laugarrena.-*** *1.0400.622.01.152.00.2016 partidaren kargura, 3929 A dokumento, Astigarragako Udalak 58.500,00 euroko ordainketa bat egitea (etxebizitza + garajeen BEZa).*

***Bostgarrena.-*** *Lokal komertzialaren BEZa, hau da 33.600,00 euro, 1.0400.625.01.152.00.2016 partidaren kargu joango da.*

***Seigarrena.-*** *Eskrituratzearen gastuak Udalarengain joatea.*

***Zazpigarrena.-*** *Alkateari baimena ematea 6 etxebizitza eta bere garajeak eta lokal komertziala jasotzeko beharrezko dokumentu guztiak sina ditzan, Jabetzaren Erregistroan guztiz erregistratu arte, zuzenketa- eta/edo argitze-eskrituak barne.*

***Segundo.-*** *Antes de la firma de las escrituras la empresa Britac Proyectos, S.L. deberá presentar en el Ayuntamiento certificados con fecha 1 de abril de 2017, de no tener cargas patrimoniales y de estar al corriente con los gastos de la comunidad.*

***Tercero.-*** *Abonar por parte del Ayuntamiento las cantidades del IVA de las viviendas+garajes y del local comercial: 58.500,00 + 33.600,00 = 92.100,00 €.*

***Cuarto.-*** *Abonar el IVA correspondiente a la vivienda + garajes, 58.500,00 €, con cargo a la partida 1.0400.622.01.152.00.2016, documento A 3929.*

***Quinto.-*** *Abonar el IVA correspondiente al local comercial, 33.600,00 €, con cargo a la partida 1.0400.625.01.152.00.2016.*

***Sexto.-*** *Abonar por parte del Ayuntamiento los gastos de escrituración.*

***Séptimo.-*** *Autorizar al Alcalde a la firma de todos los documentos necesarios para llevar a efecto la recepción de las 6 viviendas + garajes y el local comercial, hasta su total inscripción en el Registro de la Propiedad, incluidas escrituras de subsanación y/o aclaración.*

Andoni zinegotziak hitza hartu eta adierazi du beti dela berri ona ondasunak eskuratzea, baina

El concejal Andoni toma la palabra para señalar que la adquisición de bienes siempre es una

gobernu taldeak horrela erabakita, udalak eskuratuko dituen azken etxeak direla.

Alkateak erantzun dio etxeei uko egitearena aurreko legealditik datorrela, ez baitzen hirigintza-hitzarmena aldatu babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) sustatzeko, eta hori dela bere taldearen apostua. Eta Andoni zinegotziak erantzun dionean planeamenduak ez duela bideratzen BOE gehiago egitea, alkateak komentu dio beti dagoela planeamendua aldatzeko aukera.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

buena noticia, pero que por decisión del grupo de gobierno, estos son las últimas viviendas que va adquirir el ayuntamiento.

La alcaldesa le responde que renunciar a las viviendas viene de la anterior legislatura, ya que el convenio urbanístico no se modificó para promocionar viviendas de protección oficial (VPO), y que su grupo apuesta por ello. Y cuando el concejal Andoni le responde que el planeamiento no prevé la construcción de más VPO, la alcaldesa le señala que siempre existe la posibilidad de modificar el planeamiento.

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

**7.- Ondasunen ikerketa-espedientearen ebazpena: Goikoetxe eta Bortoene baserrien inguruko herri-bidea.**

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***Lehena.-*** *Goikoetxe eta Bortoenea baserrien inguruan dagoen bidea (9 poligonoko 5 eta 21 partzela mendebaldetik, eta 9 poligonoko 6, 7 eta 8 parzelen ekialdetik doana) herri bidetzat hartzea.*

***Bigarrena.-*** *Herri-bideen udal-inbentarioa aldatzea, aipatu bidearen fitxa gehituz.*

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

**7.- Resolución del expediente de investigación: camino rural alrededores de los caseríos Goikoetxe y Bortoene.**

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

**Primero.-** *Declarar como camino rural el camino que está alrededor de los caseríos Goikoetxe y Bortoenea (que va por el Oeste de las parcelas 5 y 21 del polígono 9;L y por el Este de las parcelas 6, 7 y 8 del polígono 9*).

***Segundo.-*** *Modificar el inventario municipal de caminos rurales, incluyendo en el mismo la ficha del mencionado camino.*

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad**.

**8.- Ondasunen ikerketa-espedientearen ebazpena: landalurreko 9.partzela.**

Alkateak ogasun eta ondare batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

***L*ehena.-** Ikerketa-espedientea ebaztea, adieraziz landalurreko udal-inbentarioko 9. lursaila (landalurreko katastroko 6. poligonoko 145 partzela) Astigarragako udalarena dela

**8.- Resolución del expediente de investigación: terrero rural de la parcela 9.**

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

***Primero.-*** *Resolver el expediente de investigación de la parcela 9 (parcela 145 del polígono 6 del catastro de terrenos rústicos) de*

frogatzat hartu dela.

**Bigarrena.-** Aipatu lursaila jabetza-erregistroan udalaren izenean inskribatzea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

*terrenos rústicos del inventario municipal, ya que ha quedado demostrado que pertenece al Ayuntamiento.*

***Segundo.-*** *Inscribir la mencionada parcela en el Registro de la Propiedad a nombre del Ayuntamiento.*

A continuación se procede a la votación del **dictamen**, que **se aprueba por unanimidad.**

**9.- Oier Gomez Mielgo Gasteizko presoaren inguruko mozioa**

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza eta azken horrek EHBildu taldeak aurkeztutako mozio hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*1.- Astigarragako Udalak eskumena duten frantziar agintariei eskatzen die gaixotasun larriak sufritzen dituzten presoak askatzeko indarrean dagoen legedia, nazionala zein nazioartekoa, aintzat har dezatela datozen egunotan Oier Gomez Mielgoren kartzela egoeraren inguruan hartu behar dituzten erabakietan.*

*2.- Astigarragako Udalak akordio hau helaraziko dio Oier Gomez Mielgoren kartzela egoerari buruz erabaki behar duen epaitegiari, bai eta Frantziako Justizia Ministerioari ere, Gomez haren jurisdikziopean eta babespean baitago.*

Mozioa bozkatzera ekin zaio, eta ahoz batez onartu da.

**9.- Moción sobre el preso de Gasteiz Oier Gomez Mielgo.**

La alcaldesa le ha cedido la palabra al concejal Andoni, el cual ha presentado – para su aprobación – la siguiente moción de EHBildu:

*1.- El Ayuntamiento de Astigarraga solicita a las autoridades francesas competentes tengan en cuenta en las decisiones a adoptar en fechas próximas sobre la situación penitenciaria de Oier Gómez Mielgo, la legislación vigente, nacional e internacional, para la excarcelación para aquellas personas presas que sufren graves enfermedades.*

*2.-El Ayuntamiento de Astigarraga trasladará este acuerdo al juzgado que debe decidir sobre la situación penitenciaria de Oier Gómez Mielgo, así como al Ministerio de Justicia francés, bajo cuya jurisdicción y tutela se encuentra.*

Se procede a votar la moción, la cual se aprueba por unanimidad.

## 10.- Informazio, galdera eta eskariak

a.- Harrera protokoloa

Andoni zinegotziak alkateari galdetu dio goizean edukitako bileraren ondoren aldaketarik dagoen harrera-protokoloaren inguruan.

Alkateak erantzun dio "ongi etorri" saioa maiatzaren 3an dela, eta informaziorik ez ematearen arrazoia izan dela, aste santua dela-eta, ez delako batzorderik egin. Eta arrazoi berdinarengatik ez zaiola oposizioari ekarpenak egiteko aukera eman, baina nahi izanez gero, ekarpenak egin ditzaketela eta horiek beste baterako hartuko direla kontuan. Gaineratu du saioaren data ezin dela atzeratu gonbidapenak bidalita daudelako.

Andoni zinegotziak erantzun dio hori aitzakitzat hartzen dutela, ez delako bakarrik azken hilabeteko kontua. Gaineratu du bere taldeak behin eta berriro erregistro bidez eskatu duela proiektuan parte hartzeko aukera, baina ez dela oposizioa kontuan hartu.

b.- Hondakin bilketa: errefusaren bilketa

San Marko mankomunitateak errefusaren atala noiz hasiko den jasotzen galdetu du Andoni zinegotziak. Eta alkateak erantzun dio ekainaren lehenengo hamabostaldian aldatuko dela sistema, eta Garbitania enpresa jakinaren gainean dagoela.

c.- Hondakinen isurketa-fokuak:

Azken boladan herrian dauden hondakin-isurketen arazoaren aurrean, pegatinak jartzeaz gain, udalak beste neurriren bat hartuko duen galdetu du Andoni zinegotziak.

Alkateak erantzun dio hondakinen bilketa-sistema berria ezartzea atzeratzen dagoenez, horrek dena atzeratzea dakarrela, baina neurriak hartu

## 10.- Información, ruegos y preguntas

a.- Protocolo de acogida

El concejal Andoni pregunta a la alcaldesa si tras la reunión mantenida por la mañana ha habido algún cambio en torno al protocolo.

La alcaldesa le responde que la sesión de "bienvenida" se celebrará el 3 de mayo, y que no se había dado cuenta de ello por no haberse celebrado ninguna comisión por la semana santa. Y que por la misma razón no se ha emplazado a la oposición a realizar aportaciones, pero que si así lo desean pueden realizar las aportaciones oportunas, y que serán tenidas en cuenta para un futuro. Añade que la fecha de la sesión no puede retrasarse porque las invitaciones ya han sido enviadas.

El concejal Andoni le responde que eso no son más que excusas, ya que no es un tema exclusivo del último mes. Añade que su grupo ha solicitado una y otra vez, a través del registro, tener la posibilidad de participar en el proyecto, pero que la oposición no ha sido tenida en cuenta.

b.- Recogida de residuos: recogida de la fracción rechazo

El concejal Andoni pregunta cuándo va a iniciarse la recogida de la fracción rechazo por parte de la mancomunidad San Marcos. Y la alcaldesa le responde que el sistema se modificará durante la primera quincena de junio, y que la empresa Garbitania ya está al corriente de todo.

c.- Focos de vertidos de residuos:

Ante el problema con los vertidos de residuos surgido últimamente en la localidad, el concejal Andoni pregunta si el ayuntamiento ha previsto adoptar alguna medida a parte de poner pegatinas.

La alcaldesa le responde que la entrada en funcionamiento del nuevo sistema de residuos

dituztela; batetik, kale-garbitzailearekin adostu dutela gune horiek garbitzeko; eta bestetik, konzentziazio kanpaina bat egin nahi dela.

se está retrasando, lo que conlleva un retraso en todo lo demás, pero que ya han tomado algunas medidas, como acordar con los barrenderos la limpieza de esas zonas, y que además quieren llevar a cabo una campaña de concienciación.

d.- Haur eskolako eraikin berria

Andoni zinegotziak adierazi du udal osoko bilkurak erabaki zuela haur eskola berria non kokatu eta eraikin berria 2018ko irailerako egon behar duela prest, baina azkeneko hezkuntza batzordean azaldu zela beste bi kokapen desberdin aztertzen daudela, eta hori udal osoko bilkurak hartutako akordioaren kontra doala. Gaineratu du proposamenetako bat udalarena ez den lokal batean jartzea dela, udalak lokal hori eskuratzeko aukera izan duela, baina onartu berri den birpatzelazio proiektuan bere ordez dirua hartzea erabaki dela. Bukatzeko, adierazi du udal osoko bilkurak onartuta duen kokapena egokia dela, eta horren arrazoiak eman ditu (jolatokia lokal barnean egiteko aukera, plaza handi baten ondoan kokatzea...).

Alkateak azaldu dio Partzuergoari udal akordioaren berri eman zitzaiola, eta horrek adierazi zuela aurreikusitakoa baino txikiagoa den lokal bat aski dela (450 m2rekin aski dela, hain zuzen); eta udala aztertzen dagoela kokapen egokiena zein izan daitekeen (lokalaren barne espazioa, joslatokia...), eta baita zein ateratzen den merkeago ere. Bestetik azaldu du Aguiko eremuan ez bada lokala jaso izan dela kostua zenbatekoa zen ez zekitelako. Bukatzeko, adierazi du egiten dauden azterketa ez duela akordioa urratzen, eta ez daudela oztoporik jartzen, baina erabakiak datuekin hartu behar direla, eta onartu zen proposamenak gabezi asko zituela (lokalaren jabetza, proiektu eza...)

Zinegotziak erantzun dio akordioa datu kontrastatuekin hartu zela, epe motzean udalak lokala eskuratuko duela, eta obra-proiektuaren

d.- Nuevo edificio de la escuela infantil

El concejal Andoni señala que el pleno decidió el emplazamiento de la nueva escuela infantil, y que el nuevo edificio debe estar dispuesto para septiembre de 2018, pero que en la última comisión de educación se explicó que se están analizando dos emplazamientos diferentes, en contra del acuerdo adoptado por el pleno. Añade que una de las propuestas consiste en la ubicación en un local que no es del ayuntamiento, que se ha podido adquirir el mismo, pero que en el proyecto de reparcelación recién aprobado se ha decidido coger el dinero en su lugar. Para finalizar señala que la ubicación aprobada por el pleno le parece correcta, y ha dado las razones de ello: ofrece la posibilidad de construir un patio en el interior de local, situarse junto a una plaza grande...)

La alcaldesa le explica que el Consorcio fue informado del acuerdo municipal, y que este señaló que un local más pequeño que el previsto es suficiente (es decir, que con 450 m2 es suficiente), añadiendo que el ayuntamiento está estudiando cuál puede ser el mejor emplazamiento (el espacio interior del local, el patio de recreo…) y cuál puede ser más económico. Por otra parte señala que si no han cogido el local en la zona de Agui ha sido porque desconocían el importe de su coste. Para finalizar señala que el análisis que están realizando no incumple el acuerdo, y que no están poniendo obstáculos, pero que las decisiones deben adoptarse con datos, y que en ese sentido la propuesta aprobada tenía muchas carencias, como la propiedad del local, la falta de proyecto, etc.

idazkera esleitzeko arazorik ez dagoela.

El concejal le responde que el acuerdo fue adoptado una vez contrastados los datos, que en breve el ayuntamiento adquirirá el local y que no hay ningún problema para adjudicar la redacción del proyecto de obra.

e.- Kontu-hartzailea.

Udal kontu-hartzailearen azken bilera dela-eta, udal talde politiko guztien bozeramaileek esker hitz batzuk eskaini diote -Astigarraga eratu eta denbora gutxira- udalaren eta herriarengatik lanean hasi eta aritu den langileari.

e.- Interventor.

Siendo esta la última reunión a la que asiste el interventor, los portavoces de todos los grupos políticos municipales han tenido unas palabras de agradecimiento para este trabajador que lleva trabajando en el ayuntamiento y por la localidad casi desde la misma constitución de Astigarraga.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2017ko apirilaren 26an

**Kontxi Urdampilleta Santamaría**
**Ordezko idazkaria**